

*Epeleko isurtegiaren inaugurazioa*

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

**1993ko maiatzak 28**

**194. zenb.**

Ingurugiroa  
**Etxeko  
garbiketak  
garbiagoak**

Elkarrizketa  
**Mario Montenegro  
Bosniari buruz**

**Ikastolak  
sare pribatuan**





# EUSKADI HOBETZEKO



PARLAMENTURIA

## ARRASATEN

### eman botua





Gatzagan,  
erdi erdian...  
**ZUHAITZ  
JATETXEA**



**AFARI ETA  
BAZKARI  
EDERRAK!**

Tfnoa: 71 46 08

**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46


**ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Bizipoza

**A**lai eta pozik nahi dugu bizi. Txorien txioak, lurraren emaitz gordinak eta zuhaitzen kimu berriak, bizi bizi bizitzera deitzen gaituzte. Pazkoaldiaren deiadarra ere ozenki eta suzpergarri sentzen dugu sinismendunok. Pozik eta alai bizitzera deituak, eta...

Bosnioak, serbioak, kroatak; 54 istripu gaur eta beste hainbeste bihar; Italian, Frantzia, Espainian, Euskal Herrian (?), ustelkeria eta narrakeria politikan, ekonomian; langabezia; gazteen etorkizun iluna; G. Zelaia arrautzeztua, Amparitu negarrez; familien mina, espetxeratuak, karraxia; herriko eta elizako ate eta paretak margotuak, papeleztuak, zikinak, antzinakotasunari eta kulturari kalte eginez eta atz emanez;...

ez zaigula gehiegi inporta, "guretarak" ez badira behintzat, besteen mina eta nahigabea, ez eta eskubideak ere.

Hala eta guztiz ere, **animo**. Udaberria da. Natura loratzen ari zaigu. Pazkoaldian gauden, **animo**. Kristau eta borondate oneko gizakien bihotzat ere loratzen ari dira. Izan ere, Kristok garaitu du heriotza, argitu du ilunpea eta gizabideak ireki dizkigu. Konturatu al zara, sinismenetik at ere, zein eder eta enamorantea den Ebanjelioa? ze gizaki eta gizadi "naturala", ekologikoa, proposatzen digun? **Zorionekoa zu**, Berri On hori zeure bizitzan hezur-mamitu baduzu. Udaberri zara besteentzat, eta poz iturri. Zorionak.

Honoko honetan,  
udaberritzera gonbidatzen zaitut,



Pozik eta alai bizitzera deituak, pozik nahi, pozik behar, eta ... ezin.

Geure eskuetan dauden bizipoz iturriak beraiek ere, ez ditugu, maizegi, behar bezala zaintzen; besteen errespeto eta begirune falta nabari da gure kale eta erakundeetan, geure iritzi epaikor eta azalpenetan; badirudi

herritar eta kide. Berrikuntza errazteko, sekretu txiki bat: saia zaitez entzuten zure baitan, Izadian eta lagun hurkoan, Kristoren oihartzuna: Ni naiz Bidea, Egia, Bizia.

**"SAGARRAGA"**  
**JOSE MARI ASTIGARRAGA**

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketzailea:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS  
paper ekologikoan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Joseba



**GORKA**  
 ILEAPAINDEGIA  
**SOLARIUMA**  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tfnoa: 77 13 78

**Memesa**  
 79 42 22



**ITURRIOTZ**  
**taberna**  
**Girorik**  
**jatorrena!**  
 Tfnoa: 79 16 04

**I**  
**R**  
**T**  
**A**  
**B**  
**E**  
**R**  
**N**  
**A**  
**T**  
**I**  
 Ferrerías kalea  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 56 11

.....  
**Pertsona baten egokitasunaren zalantza**

**E**rguin Eskolako irakasleek zera jakin arazi nahi dugu; maiatzaren 19an AEDk, arratsaldeko 7etan Udaletxeko aretoan eta gaueko 9.30etan ATBn, Ion Sarasuak aurkezten duen "Pareak Jokuan" programan antolatutako mahainguruetan parte hartu zutenetik, pertsona baten egokitasuna zalantzan jartzen dugula.

Gure aldetik, bai sare pribatu eta bai publikoaren aldeko iritzi desberdinak errespetu osoa dutela, denek bai dituzte argumentu defenda-garriak.

Hau dela eta, aipatutako saioetan parte hartu zuen Antxon Azkargorta, zeharo desagokitzat jotzen dugu gaur egungo OHO eta Ertaineko hezkuntzaren ezagutze falta bat adierazi zuelako. Baita sistematikoki, argumentazio giza publikako langileen eta bertako hezkuntz proiektoreen deskalifikazioa erabili zuelako ere.

Gai honi buruz eztabaidak egotea komenigarri eta aberasgarria iruditzen zaigu. Honegatik parte hartzen duten pertsonen egokitasuna beharrezkoa da eta gai honetaz ezagutza sakon bat izatea bete beharreko baldintza delarik.

**ERGUIN HERRI** **ESKOLAKO**  
**IRAKASLEAK**

.....  
**Adierazpen askatasuna eta indar errepresiboak**

**T**xuma Olaberri, 20 urteko gazte Atarrabiarra, larriki zauriturik aurkitzen da, klinikoki hilik. Larunbat gauean, Pello Mariñelarena-ren erahilketaz protestatzeko manifan, poliziak bortizki eraso ondoren, zauritu asko izan zen; hauetariko bat, Txuma, lau metro-tako distantziara jaurtitutako arma-pelota batek buruan jo zuen eta.

Hau dela eta, Irakasle Eskolako ikasleok, asanbladan bildu eta eztabaidatu ondoren, Jarraik egindako greba deialdiarekin bat egin dugu, kartelak eta komunikatua egin eta manifan parte hartuz.

Gertakizun horren aurrean gure gaitzespena adierazi nahi dugu indar errepresiboek adierazpen askatasuna isilarazteko erabiltzen dituzten metodoak salatuz.

**IRAKASLE** **ESKOLAKO**  
**IRAKASLEAK**

**ARKOK irakurleari**

Huteskunde garaia dela eta, alderdiek gure herrian antolatutako ekitaldi politikoen berri jasoko duzu, irakurle, gure medioen bitartez, bai eskuartean duzun aldizkarian, eta baita ATBren bitartez ere. Informazio-tarte bereziak ere irekiko ditugu, aurreko huteskundetan izandako botu-emaitzen ordenan atzetik aurrera hasita. Horrela, datorren astean egunean alderdi batek izango du informatiboan tarte, eta mahaingurua ere antolatuko da, kanpotik etorritako politikariek.

ARRASATE PRESSEK, Arrasateko emaitzak jasoko dituen orri berezi bat emango du argitara huteskunde-biharamonean. Aurretik informazio horri jarraipena egingo zaio, baina gutunen sail honetan ez da alderdi politikoen idazkirik edo horiei buruzkorik argitaratuko.


Ikus Agendan gure programazio berezi.

**F** **A** **N** **C** **Y**  
**F** **A** **N** **C** **Y**  
 Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**B** **a** **s** **a** **b** **e**  
**j** **a** **t** **e** **t** **x** **e** **a**  
**Menu eta afariak**  
**Boda eta banketeak**  
 Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
 Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94



# Errenta aitorpena egiten duzu?



**Juan Pedro Luna**  
Ulgorreko langilea  
(50 urte)

Hemen bertan daukat sobrea eta oraintxe bertan noa botatzen. Aspalditik egiten dut eta aurtengoa ordaintzea tokatu zait. Normalean hemen bertan, Arrasaten egiten dut.



**Ana Kortabarria**  
Etxekoandrea  
(39 urte)

Bai, azken urteotan egin izan dut, normalean mekanizatua egiten dut eta Bergarara eramaten dut. Aurtengoa beste urte batzuetan baino txarrago geratuko zait seguruenik.



**Iñaki Kortabarria**  
Jubilatua  
(67 urte)

Bai, urtero egiten dut. Aurtengoa oraintxe nabil egiten eta uste dut beste urte batzutan baino hobeto irten zaidala, etxe bat erosi dugu eta.



**Mikele Urretxo**  
Ikaslea  
(20 urte)

Nik ez dut egiten, baina nire aitak bai. Uste dut aitak urtero urtero egiten duela gainera.



**Rosa Maria Castrillo**  
Amuebladora Mondragonesako langilea  
(31 urte)

Ea egiten dudana? Ez dago beste erremediorik, ezta? Aurtengoa ez dut egin oraindik, baina urtero bezala, kobratu egingo dudala uste dut.



**Luis Miguel Gonzalez**  
Langabetua  
(58 urte)

Urtero egiten dut, aurtengoa ere martxan dago, oraintxe nabil egiten eta. Baina datorren asterarte ez dut jakingo nola geratuko zaidan.



**Karmele Loiti**  
Zapatodos-eko langilea  
(32 urte)

Nik ez dut egiten baina nire senarrak bai eta egin beharrek ez gaude oso konforme, baina egin egin behar denez... Egia esan, ez dakit horretaz ezertxo ere.



**Felix Lizundia**  
(55 urte)  
Fagor Arrasateko langilea

Urtero egiten dut, ez dago beste erremediorik eta. Oraindik ez dut egin, baina uste dut beste urte batzutan bezala emango didala.



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
Iarruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**GIZA-ORIENTAZIOA**  
Kristalezko bola / Tarota  
**PILAR OCONHOR**  
Ordua hartuta: 79 67 65

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igoalorioa ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 71 44 52  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz ..... 45 87 44

**Udaltaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 79 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasak ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Montterongo liburutegia**  
 Montteron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 28**  
 Egunez: Corcuera. Musakola.  
 Gaeuz: Corcuera. Musakola.

**Larunbata 29**  
 Egunez: Irizar. Erguin.  
 Gaeuz: Irizar. Erguin.

**Igandea 30**  
 Egunez: Amezua. Santa Marina.  
 Gaeuz: Amezua. Santa Marina..

**Astelehena 31**  
 Egunez: Ruiz. Maala.  
 Gaeuz: Ruiz. Maala.

**Asteartea 1**  
 Egunez: Morales. San Andres.  
 Gaeuz: Morales. San Andres.

**Asteazkena 2**  
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.  
 Gaeuz: Puy. Barrenkale.

**Osteguna 3**  
 Egunez: Español. Iturriotz.  
 Gaeuz: Guallar. San Antonio.

**28 OSTIRALA**

**ZINEA**

"Niños robados"(7,10)

**DIPOSITIBA EMANALDIA**

"Everest"ari buruzko diapositiba emanaldia. Arratsaldeko 7etan. San Viator Ikastolako Aretuan.

**ROCK KONTZERTUA**

"Amasey" taldearen rock kontzertua. Gaueko 11etan. Eloorrioko Arriola Kultur Aretuan.

**ANTZERKI EMANALDIA**

"Nake" taldearen eskutik "Vivir del cuento" obraren antzezpena. Gaueko 10etan. Aretxabaletako Zarea zineman.

**PSE-EEko MITINA**

PSE-EEko mitina. Partehartzai-leak: Mario Onaindia, Senatutako zerrenda burua, Anjel Garcia Ronda, Kongresurako bigarren hautagaia eta Ana Miranda, eurodiputata. Arratsaldeko 7etan. Montteronen.



**60 URTETIK GORAKOENTZAT OMENALDIA**

Datorren ekainaren 24an Udalak 80 urte baino gehiagoko arrasatear guztiei egingo dien omenaldian parte hartzeko, zabalik dago izena emateko epea. Interesatu guztiek Udaletxean eman beharko dute izena.

**29 LARUNBATA**

**ZINEA**

"Eternamente joven" (5,7.30,10)

**PAPER BILKETA**

Paper bilketa. Orkatz Skaut taldearen eskutik. Goizean zehar.

**LUDOTEKA ERGUINEN**

AEDko ludoteka Erguin ikastetxean. Goizeko 10.30etatik 1.30etara. OHOkoko ikasleei zuzenduta.

**BEINKEKO EKINTZAK**

- Elkartearen jardueraren azterketarako mintegi edo bilera. Kurtzeberri eskolan. Arratsaldeko 3etatik 7etara.
- Kantu afaria. Gaueko 8.30etan. Uratzalde elkartearen.

**PENTECOSTESKO BIGIRA**

Pentecostesko bigira. Kontzesio-ko komentuan. Gaueko 10etan. Igoera kotxe partikularretan egingo da, Garibaitik.

**ROCK JAIALDIA**

"Malaña", "Extremo Duro" eta "La Polla Records" taldeen rock kontzertua. Gaueko 10.30etan. Musakolako Kiroldegian.

**JUBILATUEN EGUNA**

Jubilatuen eguna. Goizeko 11etan dultzaineroekin kalejira. 12.30etan meza. Egurdiko 2etan lagunarteko bazkaria Kiroldegian. Arratsaldeko 4etan dantzaldia, sari banaketa...

**PAPER BILKETA**

Urtero bezala bihar, maiatzak 29 paper bilketa egingo dute Orkatz Skaut taldeak. Hala ere, paper sektorearen egoera ekonomikoa txarra dela eta, bilketa hau azken izango da. Hemendik aurrera gordetzen duzuen papera, kontenedoretan botatzea gomendatzen dute Skaut taldekoek.

**30 IGANDEA**

**ZINEA**

"Eternamente joven" (5,7.30,10)

**BARDEETARA IRTEERA**

Bardeetara irteera. EKI ekologista taldeak antolatuta. Irteera goizeko 8.30etan Arrasateko ohizko tokietatik.

**MENDI IRTEERA**

"Bailarako VI. Itzulia"ren barruan, Leniz itzulia mendi irteera. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta.

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Zikloturisten irteera: Aretxabaleta-Urbina-Gasteiz-Portua-Uzkiano-Trebiño-La Puebla ibilbidea.

**JUBILATUEN EGUNA**

**Larunbatean, maiatzak 29, jubilatuen eguna ospatuko da Arrasaten. SUDC taldeak antolatuta, honako ekintza desberdinak egongo dira egunean zehar. Goizeko 11etan Arrasateko dultzaineroen kalejira batekin hasiko da jaiak. 12.30etan herri meza San Juan elizan eta ohorezko aureskua Lore-Gazteak dantza taldearekin. Egurdiko 2ak laurden gutxitan Garibai kaletik Polikiroldegira joango den autobusaren irteera eta 2etan lagunarteko bazkaria. Arratsaldeko 4etan adin gehien duten gizon eta emakumei sari banaketa egingo zaie eta jubilatuentzako dantzaldia ere egongo da.**



**31 ASTELEHENA****ZINEA**

"Eternamente joven" (7,9.30)

**HAUTESKUNDEAK ATBn**

8, 8.30 eta 9etako informatiboan:  
**Joseba Ugalde** IUtik.

**EA-EUEko EKITALDI POLITIKOA**

EA-EUEko Imanol Murua, Esther Larrañaga, Patxi Baztarrrika eta Kepa Aulestia Arrasaten izango dira egunean zehar, enpresak, Alkatetxea eta Eskola Politikoa, bisitatu dituzte, eta hitzaldia emango dute Udaletxean.

**DIAPPOSITIBA LEHIAKETA**

"Zerua eta kirola" diapositiba lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna. Ikarus Taldeak antolatuta. Irabazleen izena ekainaren 10ean ezagutuko da.

**AEDko UDALEKUAK**

**Uztaileko AEDko Udalekuetan parte hartzeko interesa duzuen ume guztiok, zabalik duzue datorren ekainaren 5a bitartean izena emateko epea. Beraz, oraindik astebetean AEDn hartuko dira izenak.**

**HAUR DANTZARIEN EGUNA**

Aurreko urtetan egin duten bezala, datorren ekainaren 20an haur dantzarien eguna ospatuko da Arrasaten. Hori dela eta, herrira haur asko etorriko denez, eta herriko etxeetan bazkalduko dutenez, denon laguntza eskatzen da. Lore gazteak taldeak antolatzen du eguna eta umeren bat etxean hartzeko interesa duzenok, AEDn eta Hiren eman beharko duzue izena.

**1 ASTEARTEA****ZINEA**

"Eternamente joven" (7,9.30)

**HAUTESKUNDEAK ATBn**

8, 8.30 eta 9etako informatiboan:  
**Esther Larrañaga** EA-EUEtik.

**MANIFESTALDIA**

Autodeterminazioa eta Anmistiaren aldeko manifestaldia. Arratsaldeko 7.30etan. Sebero Altuben. Arrasateko Amnistiaren aldeko batzordea.

**IU-EZKER BATUAREN MITINA**

IU-EBaren mitina. Partehartzaiak: Juan Vallejo, senaturako hautagaia eta Juan Mari Tomasena, Kongresurako hautagaia. Arratsaldeko 7etan. Udaletxean.

**2 ASTEAZKENA****HAUTESKUNDEAK ATBn**

• 8, 8.30 eta 9etako informatiboan: EAJ-PNVtik **Xabier Lasaga**.

• Mahaingurua. Partaideak: Santi Bengoa (IU), Imanol Murua (EA-EUE), Joseba Egibar (EAJ-PNV), Mario Onaindia (PSE-EE) eta Begoña Garmendia (HB). Gaueko 9.30etan.

**HITZALDI-ELKARRIZKETA**

"Drogomenpekotasunaren aurrean familiaren zeregina" izeneko hitzaldi-elkarrizketa. Hitzlariak: Gasteizko "Gizakia Helburu"ko familiak. Arratsaldeko 7etan. Monterronen. Lizarra elkarteak antolatuta.

**3 OSTEGUNA****HAUTESKUNDEAK ATBn**

8, 8.30 eta 9etako informatiboetan: PSE-EEtik **Paco Garcia**.

**4 OSTIRALA****HAUTESKUNDEAK ATBn**


8, 8.30 eta 9etako informatiboetan: HBtik **Xabier Zubizarreta**.

**43AN JAIOTAKO ARRASATEARRENTZAT OHARRA**

Datorren ekainaren 12an, 43an jaiotako arrasatear guztiak gonbidatuta daude egun horretan izango den jaian parte hartzera. Izena ekainaren 5a baino lehen eman beharko da telefono hauetara dei eginez: 79 15 34 edo 79 89 99.



**HAUTESKUNDEAK 93**


**ERTAINETAN "D" EREDUA BULTZATZEKO KANPAINA**

AEDk eta Udaleko Hezkuntza batzordeak, datorren urteari begira, OHOk 8. mailako ikasleek, "D" ereduak aukera ezaten bultzatzeko kanpaina berezia jarri dute martxan. Kanpainaren barruan, bultzakada handia emango diote prentsa idatzian eta horretaz gain, ikasle, guraso eta ikastetxeetako zuzendarierei ere gutun pertsonalak bidaliko zaizkie. Aurten 358 ikasle pasatuko dira OHOtik ikasketa ertainetara.

**HAUTESKUNDEETAKO PROGRAMAK ATBn**

**Ekainaren 6ko hauteskundeak direla eta, ATBk saio bereziak eskainiko ditu datorren astetik aurrera. Eguneroko 8, 8.30 eta 9etako informatiboetan alderdi desberdinetako ordezkariak egongo dira. Maiatzak 31an IUko Jose Ugalde, ekainaren 1ean EA-EUEko Esther Larrañaga, ekainaren 2an EAJ-PNVko Xabier Lasaga, ekainaren 3an PSOEko Paco Garcia eta ekainaren 4an HBko Xabier Zubizarreta. Horretaz gain, ekainaren 2an gaueko 9.30etan mahainguru berezia egongo da honako partaideekin: Santi Bengoa (IU), Imanol Murua (EA-EUE), Joseba Egibar (EAJ-PNV), Mario Onaindia (PSE-EE) eta Begoña Garmendia (HB).**





GIPUZKOAKO KONTSEILARIAK


# ASESORES DE GUIPUZCOA

**Haziendak  
kezkutzen zaitu?  
Lagunduko dizugu**

Otalora Lizentziatua, 4  
ARRASATE  
☎ 79 93 11

**ATERA ETEKINA ZURE:**

- LANARI
- ENPRESARI
- NEGOZIOARI
- DIRUARI



**V.O. VERSION ORIGINAL**

Alava Generala, 16 GASTEIZ Tfnoa: (945) 13 33 39

**V.O. JEANS**

Postas, 5 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 24 15

**MANGO**

Postas, 5 GASTEIZ  
Tfnoa: (945) 23 04 48






**EAJren mitina**

EAJk mitina izan zuen

larunbat eguerdian. Bi autobuseko hauteskunde karabana etorri zen Arrasatera, Gipuzkoako hautagai jeltzale guztiakin. Mitinean, San Viator aretoa bete egin zen 250 lagun ingururekin. Hizlari nagusia Joxe Joan Gonzalez de Txabarri zerrendaburua izan zen. Lanpostu berriak eta enpresa egitasmo sendoak sortu beharra aipatu zuen Txabarrik, EAJren "Euskadi hobea eraikitzeko" lema esplikatzear. Estatutua hitzez-hitz garatu dadila eskatuko dutela ere esan zuen zerrendaburuak. Eli Galdos Diputatu Nagusia eta Joseba Egibar EAJko bozeramalea ere izan ziren

hizlari. Entzuleen artean, Joseba Arregi Kultura sailburua ere egon zen.



**HBren hauteskunde afaria**

Herri Batasunak ostiral iluntzean hauteskunde afaria antolatu zuen Arrasaten, eta 95 lagun inguru bildu ziren. Hizlari eta gonbidatu nagusia Begoña Garmendia izan zen, HBko Gipuzkoako zerrendaburua. Begoña Garmendiak nabarmendu zuenez, Herri Batasunak Gipuzkoan aurkeztu duen hautagai zerrendan guztiak dira euskaldunak, eta hori HBk ordezkatzeko duen ezker abertzaleak euskarari ematen dion garrantziaren seinale dela azaldu zuen.



**EA-EUE koalizioaren afaria**

Eusko Alkartasuna eta Euskal Ezkerrak osatutako koalizioak ere hauteskunde afaria izan zuen larunbatean, 90 bat lagunengarekin. Hizlariak bi arrasatear izan ziren, senadurako 2. hautagaia, EAKo Esther Larrañaga, eta EAKo exekutibako Anjel Larrañaga. Biek EA-EUE koalizioaren lema gogoratu zuten, beren zerrendetan konfiantzako pertsonak azaltzen direla, alegia. Bestetik, EA eta EUEren artean osatutako koalizioaren osaketaz argibideak eman ziren.

**AED-Udala hitzarmena**

AED eta Udalaren arteko 1993rako hitzarmena

sinatu zuten astelehenean Joxe Mari Mujika AEDko lehendakariak eta Xabier Zubizarreta alkateak. Udaleko Euskara sailetik 11.684.000 PTA jasoko ditu AEDk honako zereginetarako: haurren ekintzak, literatura, kultur jarduera, emakume taldea, sentsibilizazio eta azpiegiturarako. Gazteriatik 420.000 PTA izango dira Santamainako lokalera, eta Kulturatik 600.000 PTA pastorala antolatzeko eta 4.152.000 PTA ludotekarako.

**Bide mozketa**

Arrasate igarotzen duen errepidea itxita egon zen joan den asteburuan, Legarre inguruan bidezko tuberia batzuk sartu behar zirelako. Astelehenean arazo barik ireki ahal izan zuten errepidea.

**'CARFRA' SUKALDE ALTZARIAK 5 URTETAKO GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU ENPOTRATUAK ISPILU-ATE KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA KANPOKO ATEAK**



CARFRA




**ERAKUSKETA**

Legarre pabiloia z/g  
Gipuzkoa Etorbidea  
Tfnoa: 79 01 92  
**ARRASATE**



marka italiarraren banatzaile ofiziala





GOTZON GARATE \*

## Mondragoi-Oñati inguruko euskara

**Hogeita** bost urtean nabili Euskal herriko zazpi probintzietako baserrietan. Bai zoragarria eguzki eguzki beti euskaraz egiten duten baserrietaren euskara! Ez dago inongo euskara guttiesterik. Halere, euskal egiturari begira (alderdi fonikoak eta lexikoak ez dute horrenbeste inportantzarik) euskararik onena bizkaieraz egiten dela esan behar da eta batez ere Mondragoi, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio, Oñati eta horien inguruetan.

Horko euskarak badiru bizkaieraren alderdi on guztiak eta horien ginetik beste batzuk. Bizkaierak gipuzkerak baino askoz hobeto bereizten ditu: Erreflexiboak (*neure, zeure...*), intentsiboak (*neu, zeu...*), erakusleak (adiskide maiteok), konpletibak *-nal-la* (etorri dana badaki / etorri dala esan du), eta *-lalnik* (etorri dala usten dot / ez dot usten etorri danik).

Konjuntzioak oso ederki ipintzen dira bizkaieraz azkeanean:

“Nik hori esan *arren*”, “Nik esan nion *baña*”, “Nik esan nion *barren!*” (= bai arren). “*Nahiz* hori ekarri”, adibidez, askoz erdaldunago da.

Bizkaieraz oso ondo bereizten dira *iñor/beste*. Inor *besteak orokorki* da. *Beste* jazargoan, oposizioan erabiltzen da: “Ori *iñoren* lepotik bizitzeko ona!”. “Batzuk onak dira, *bestiak txarrak*”.

Oso diferente dira bizkaieraz “*etxe baten* egon naz” eta “*etxe batean* ondo eta bestean txarto”.

Bizkaieraz biziki ongi bereizten dira *bere/bera(re)n*. “Amak bere umia maite dau. Bera(re)n aitzak ez”. Latinez ere horrela: “*Mater filium suum amat; illius soror non amat eum*”.

Eta zer du Mondragoi-Oñati inguruetako euskarak

beste tokietako bizkaierak, Markiñako euskarak, adibidez, ez duena?

Eten gabe erabiltzen dituzten aditz-sustantibo moldeak. Moldeok antxinateko euskararen usai ona dute euskalki guztietan galdu egin dira:

“*Adiketan dot*”, “*pentaketan debe*”, “*zainketan dogu*”, “*ifinitzu esnea beroketan*; *alabetan dozun*”, “*batonbatek bere burua abonetan badau*, asko *kostetan badau*”, “*gomutetan naz*”, “*preguntien joaten da Erromara*” eta horien antzeko moldeak sustantibo moldeak dira. Beste tokitan “*aditzen dut*”, “*pentatzen dut*”, “*asko kostatzen badu*”, “*preguntatuz*” esaten dugu. Molde hauek erromanizatuagoak dira.

Sustantibo molde eder horietarik guri banaka batzuk bakarrik gelditu zaizkigu: “*Urketan da*”, “*orrazketan dihardu*”, “*berbetan egin*” eta abar. Baina ez gerundioaren ordezoak egiteko.

Gauza bera esan liteke “*illunkeran*”, “*ezkondukeraran*”, “*jokeran*” eta horien antzeko moldeez. Guk “*iluntzean*”, “*jotzean*”, erabiltzen ditugu, molde erromanizatua goetan.

Mondragoi-Oñati inguruetako euskara, berqaz, zinez da euskaldun, jator, estimagarri, batzutan belarrietarako zakartxo eta basatiago badirudi ere. Amazonasko basoak ere baratzetxo ongi zainduak baino zakarrago eta basatiago dira. Bai eta askoz zoragarriago ere.

\* DEUSTU UNIBERTSITATEKO KATEDRATIKOIA

## USTEAK USTE

### ZERRAJERAKO ONDASUNA GALTZEAR?

**Arrasatearrantzat hain mingarria gertatzen ari den Zerrajerako desmantelamenduak aidean utzi dezake herriari zor zaion ondasun garrantzitsu bat. Ondasuna ikuspegi ezberdinetatik begiratu ta ere interesgarri bezain gorde beharreako da. Arrasate indutriaratzearen lekuko, ordurako aurrerakoia izango zen makineria erraldoia, fabrikatutako produktu ugariak, bertako eraikuntzak, sasoi loratuenean zantzuak, orduko ondasun higikorrek: mobiliarioa, lanparak, koadroak, etabar luze bat pentsatzen dut, imajinatzen dut. Batek daki, 93 zakar honek daraman abiadura kaltegarria ikusita non, nola, zeinen eskutan bukatuko duen material mordo horrek, edota eraikuntza berriak eginez, zaharrak aurretiaz botaz, zenbat buru aberastuko litzatekeen. Edozein modutan dela ere, herri osoarena, bere historiarena den ondasun hauek herrian bertan gera daitezen ahalegindu beharko ginateke.**

JON GARAI

Zurgin Kantoi, 2  
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94





Afektatu taldeek prentsaurreko bateratua eskaini zuten asteartean udaletxean.

## Uherkapeko horma egiteko agindua eskatuko da plenoan

Ostiral honetako udalbatza edo plenoan, Uherkapeko hormaren auzia tratatuko da, aurkeztu diren zenbait mozioen bitartez. Mozio nagusia, Uherkapeko etxeak erosi dituztenek aurkeztu dute, eta Udalari horma egiteko agindua eman dezan eskatzen zaio. Beste mozioak, Altamira, Makatzena, Erdialde eta inguru etako bizilagun komunitateenak dira, eta La Merced ikastetxeko gurasoena. Hauek ere helburu bera dute, horma lehenbailehen egin dadila, Altamirarako errepidea zabaldu dadin.

Afektatu talde hauek prentsaurrekoa eman zuten asteartean. Bertan, Azatzako etxeetako bizilagunen jarrera kritikatu zuten oso gogor. Azatzako etxeak dira mugitu zirenak Uherkapeko malda behera etorri zenean, eta etxe eta maldari eusteko egin behar da horma. Hala ere, Azatzakoek baldintza ekonomiko oso handiak jartzen dituzte horma egiteko, eta hortik dator obren gelditzea.

Afektatuek azaldu zutenenez, Azatzakoekin hitzezko akordioa lotu zuten martxoan.

Haren arabera, horma egiteko, 250 milioiko abal bat ziurtatzen zitzairen, etxeen konponketa eta 50 milioiko kalteordaina. Baina, prentsaurrekoan talde afektatuek salatu zutenenez, horretara ailegatu eta hurrengo astean, Azatzakoek abala bikoiztea eskatu zuten. Auzia hiru urtez luzatzen ari dela eta, mozioan obra behingoz egin dadin agindua eskatzen dute orain, negoziazio bidea antzu geratu dela ikusita. Mozioen edukia alderdi politiko guztiekin tratatu dute, eta afektatuen arabera, hitzezko adostasuna guztiek azaldu diete.

Horma egiteko proiektu teknikoa, duela bi aste jaso zuen Udalak. 250 milioi inguruko aurrekontua da, eta oraindik ez dago argi nork ordainduko duen. Aurrerago, aseguru etxeen artean edo arbitrai baten bitartez erabaki beharko da nork ordaintzen duen, baina lanak egin, Udalak orain egin behar dituela diote afektatuek. "Hormak du preferentzia; horma barik ez dago ez etxerik, ez karreterarik", adierazi zuten afektatuek prentsaurrekoan.

### Bi pleno batera

Ostiral honetan bi pleno izango dira, bata bestearen atzean. Uherkapeko auzia, pleno berezi batean tratatuko da, baina hori baino lehenago ohizko udalbatza izango da. Ukituko diren gaien artean, Takolo bidekorapilea burutzeko lursailak erosteko proposamen bat dago, eta baita Arau Subsidiarioetako erizpideak finkatzeko eskaera bat ere, Kontzesiño aldeari dagokion inguruan.

### Gasoil isurketa Aramaio errekan

Udaltzaingoak salatu duenez, joan den maiatzaren 6an gasoil isurketa bat detektatu zen Aramaio errekan, Uribarri auzoaren parean. Udaltzaingoak Konfederakunde Hidrografikoaren aurrean salatu du antza denez industria lantegi batek eragindako kutsadura kasu hau.

### Manifestaldia asteazkenean

Manifestaldia izan zen asteazkenean Arrasaten, Jarraik deitutako borroka egunean. Ehundik gora manifestatu ziren kaleetan, Jesus Mari Olaberri gazte nafarra Iruñean larri zauritu zuelako protestan. Olaberri koma egoeran dago joan den larunbatetik, Pello Mariñelarena presoaren heriotzagatiko protestetan Poliziak gomazko pelota bat jaurti zionetik.



## ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

### Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99





J.M.Loiti, Mankomunitateko lehendakaria eta J.A. Maturana, Herri-lan sailburua ostegunean Arrasaten.

## Epeleko isurtegi kontrolatua ireki da aste honetan

Epeleko hondakin isurtegia ostegunean ireki zen ofizialki. Isurtegi kontrolatu honek hondakin solidoak bilduko ditu, eta ia bi milioi metro kubikoko kapazitatea dauka. 30 urtean irauteko pentsatuta dago, eta 260 milioi PTako inbertsioa eskatu du, Eusko Jaurlaritzak aportatutakoa. Isurtegiaren gestioa Deba Garaiko mankomunitatearen esku geratu da.

Hondakin solido ez arriskutsuak bilduko dira Epelen, eta Deba Garaian orain esistitzen diren 33 isurtegiak (Arrasaten 8 daude) ixteko edo kontrolatzeko balioko du. Hondakin arriskutsuak tratatzeko gaitasuna Jaurlaritzaren esku geratzen da.

Eskualdeko alkate gehienak izan ziren inaugurazioan, Arrasatekoa barne, eta Mankomunitateko lehendakaria ere bai, Jose Mari Loiti. Honek nabarmendu zuenez, duela 11 urte Akeiko hondakin erretegiarekin hasitako lana osatzeko balioko du Epeleko isurtegiak, Akeikoarekin, hondakin industrial solidoen gaia konpontzeke geratu zen ezker. Jaurlaritzaren izenean, Jose Antonio Maturana Herri-lan, Hirigintza eta Ingurugiro sailburua izan zen isurtegia inauguratzen. Maturanak Deba Garaiko mankomunitateak ingurugiroa zaintzeko eta hondakinak prozesatzeko jartzen duen ardura goraipatu zuen.

## Bosniarrentzako laguntzaren luzapena

Deba Garaia Bosniarrekinek' elkarteak Eskoriatzan dauden 19 errefuxiatu bosniarren egonaldia luzatu egingo dela iragarri zuen astelehenean, gerrak onera egin ez duelako Bosnian. Elkartasun erantzun handia nabarmendu eta eskertu zuten: 8,9 milioi PTA bildu dituzte, baina jana eta ordainduta zegoenez, oraindik 6,6 milioi geratzen zaizkie gastatzeke. Dena den, janariarekin laguntzen segitzeko, eta udako erropak eroateko eskatu zuten, horren premian baitaude.

## Fagorreko asanblada

Asteartean egin zen Fagorreko urteko asanblada. 93rako gestio plana onartu zen, eta planen ardatz bezala, produktu eta aktibitate berriak lantzeko egitasmoa. Kooperatibako arduradunen iritziz, egoera orokorra ona ez dela jakinik, erresponsabilitate handiak dira hartu behar izan direnak; baina itxaropentsu azaldu ziren, dena den.



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE


comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



**Alkoholarekin arazoak daukazu?**

Agian,  
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99


**ARRASATE PRESS**

HARPIDETZAK



**77 05 65**





Pastoral: AED eta iparraldearen arteko lankidetzaren beste adibide bat.

## AEDk Seaskari laguntzeko auzolandegia antolatuko du

Arrasate Euskaldun Dezagunek Iparraldeko Seaska ikastola elkartearekin elkarkidetza estutuko du aurtengo udan, eta auzolandegia antolatuko du Kanbon (Lapurdin), bertako Xalbador ikastegian laguntzeko. Ideia Arrasatetik bertatik sortu da. Seaskari deitu zitzaion duela aste batzuk, eta oso gogo onez hartu zuten asmoa Iparraldean. Auzolandegi hau Xalbador ikastegian egongo litzateke. Seaskak ez luke etxea baino jarriko, jana eta gainerakoa Arrasatetik eroango litzateke. 20 pertsonako txanda batzuk antolatuko dira, uztail eta abuztuan, baina oraindik epeak eta detaileak ez daude zehaztuta.

Hogei lagunetarik, sukaldari arituko lirateke pare bat, eta gainerakoek ikastegiko lanetan jardungo lukete: garbitzen, lorategian, edo hainbat gauzatan. Izan ere, ikastegia handitzeko obretan daude, eta Seaskatik lan espezifikoa eskatu dute, ea hojalatero edo linternerorik joango litzatekeen, edo elektrizistaren bat.

Kanboko Xalbador ikastegia da Iparraldean irakaskuntza ertaina euskaraz eskaintzen duen zentro bakarra. Seaskaren proiektu garrantzitsuenetarikoa da gaur egunean. Aurtengo Herri Urratsen bildutako diru gehiena, ikastegia handitzeko lanetarako izan da.

## Papera biltzen eta birziklatzen

Deba Garaiko Makomunitatea pozik dago papera birziklatzeko bilketarekin, baina arreta gehiago eskatu dio jendeari, paper eta kartoiak kontenedore edo ontzien barruan uzteko, ez kanpoan, askotan gertatzen den bezala. 40 bilketa puntu daude Deba Garaian, eta jendeak ondo erantzuten du oro har. Ez du behar ez den materialik jaurtitzen ontzietara, baina kanpoan paperak utzi bai, eta honek bilketa lana konplikatu egiten du, lan asko ematen du.

Azaroan zerbitzu hau martxan jarri zenetik, 7 hiletan, 350 tona paper jaso dira. Urtean 500-600 inguru izango dira, espero ziren 500 tona pasatxoenguan. Papera Gasteizko lantegi batera saltzen da, eta handik papertegietara saltzen dute. Azkenaldi honetan paper gehiago biltzen ari dira, orain arte beren kasara biltzen ibili diren partikular askok utzi egin diolako. Itxuraz, paperaren merkatua oso txarto dago, eta une honetan ez du dirurik ematen papera biltzeak.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)





Amaia Gabilondo, Maite mate lanean; zure denda Agirrebeitia eta Iñaki Etxe- edo enpresaren publizitatea berrria ditugu ARKOko pu- egitera hurbiltzen bazaizki- blizistak. Ia hilabete dara- zu, badakizu nortzuk diren!



*Aurten ere SUDC elkarteak atzeratuena eguna ospatu du. Igandean, ekintza piloa burutu zuten, atzeratueta senide guztiei zuzendutakoak eta partehartze ezin hobearekin, gainera.*

*Arrakasta ikusita, hurrengo urtebete pasa baino lehen antolatuko ote dute?*

**Santa Marinako Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko 30 emakume Italiara joango dira domekan. AEDko EKIN emakume taldeko 22 emakume, berriz, Londres aldera irtengo dira datorren asteartean. Ondo pasa!**




**Pasa den larunbatean rrietako ume ugari bildu Deba Garaiko eskola arteko kirol topaketak zuten eta, gustoko zituzten kirolak eta jokuak burutu ziren Aretxabaleta aldean. Inguruko heziketa praktikatzeko aukerak izan zuten.**



Arrasatear kuadrila hau Guadarmar de Seguran dago. Argazkian: Magdalena Bilbao, Felix Balanzategi eta emaztea, Manuel Alonso eta emaztea, Matilde Benito, Frantzisko Lazeano eta emaztea, Pablo

Ezkurra eta emaztea, Mari Cruz Apaolaza, Adolfo Alutiz eta emaztea, Miguel Tenero eta emaztea, Norberto Bermejo eta emaztea, Felix Garai eta emaztea... Gorantziak bidali dituzte Mondragoera!

**Elektroinjekzio Zerbitzua**



**ARRASATE KONPONKETAK**


Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE





## IZEN PROPIOAK

Oraindik ia hilabate falta da San Juanetarako baina, jaien kartel iragarlea ezagutzen da, argazkian duzen honako hau izango da eta egilea Joakin Rodriguez Fernandez arrasatearra izan da. Laster, kalean ere ikusiko dugu kartela.



● **Izaskun Iglesias**, 11 urteko arrasatearrak, gimnasia erritmikoko Gipuzkoako alevin txapelketa irabazi zuen. **Elena Lanuza**, 14 urtekoa, berriz, kadete mailako lehen postuan geratu zen. Biak ere, ekainean burutuko den Euskadiko txapelketara pasatuko dira.

● **Iñigo Esnaola**, 24 urteko gazteiztarra izango da Monterronen zabalduko den informatika gelako arduradun edo monitorea. Aurretik ere IMIn ibilitakoa da.

● **Linda Xiuli Zhang** madrildarrak, Iturriotz kalean jatetxe txinoa zabaltzeko informazioa eskatu du Udaletxean. Baina orain proiektua aurkeztu beharko du.

● **Anne Igartiburu**, 24 urte, datorren larunbatean TVEko lehen katean, eguerdiko 2.30etan eta Karlos Argiñanoren zuzendaritzapean emitituko den "Este sabado cocino yo" programako gonbidatua izango da. Anne Elorriokoa da eta Ikerlanen lan egiten du. ATBko Bakarka saioaren aurkezlea da.



Goiko argazkian ikusten dituzuen 43ko kintoek eta beheko argazkiko 50koek egun berezia ospatu zuten larunbatean. San Isidro elizan meza izan eta gero, Hostalean bazkaldu zuten kuadrila biek, guztira 40 lagun inguru. Animatu hurrengoan ere eta urte askotarako izan dadila!



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76


.....  
**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**  
.....

**BAZAR**  
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE





**EA  EUE:** Zuzen eta garbi jokatzeko Euskadiren alde bildu gaitu.

Gipuzkoan erakutsi dugun zintzotasuna Madrilen agertu nahi dugu.


Euskadiren aldeko aukera berri bakarra.

Soldadutzari zein bortizkeriari intsumisioa.

**EMAN  
BOTOA**


**EA  EUE**

**B A T E G I N I K**





# Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



## Zuloak-Trikiti: finala prest

Maritxuren bixamonarekin batera, 72 talde jarri ziren martxan urriaren hasieran Zaldibarreko futbito txapelketaren bila. Hilabeteen poderioz gehienak bidean geratu dira. Iritsi da maiatza, eta prest daukagu jadanik aurtengo final handia: aurrez-aurre, bi talde beterano, Zuloak eta Trikiti. Bazirudien Zuloakekoek lan zaila zeukatela finalerdietan, iazko txapeladunen kontra, Argi Ibilikoek kontra. Joan den larunbat eguerdian iritsi zen egiaren ordua, eta

pronostiko guztiak hautsiz, Zuloak taldeak finalerako txartela eskuratu zuen.

Beste semifinalen ere kontuak airean egon ziren azken unerarte. Baina une erabakiorra iritsi eta Trikiti izan genuen nagusi, Lenitzekoak kanpoan utziz.

Larunbatean egun handia biziko dugu Zaldibarren. Arratsaldeko 5etan, toreroen orduan, epaileak hasiera emango dio urteko norgehiagoka garrantzitsuenari. Zuloak-Trikiti, finala prest.

**NUEVO**  
taberna

Bañez Doktoea, 15  
Tfnoa: 79 99 88  
ARRASATE



DEBA  
**GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia  
Tlfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

**SEGURASKI BAIETZ !**





**Trikiti 5  
Leintz 4**

Kanporaketa berdina eta parekatua eskaini dute inolako duda barik Trikiti eta Lenitz Garagardotegia taldeek, emozioa lege.

Lehenengo partiduan Trikitik garaipena lortu, 3 eta 1, eta beraz abantaila aipagarria zeukan finalerako bidean. Ez zen, ordea, abantaila erabakiorra, ez eta gutxiago ere.

Larunbat honetan bigarren partidua hasi, gainera, eta Lenitz taldeak ezinhobeto egin zituen gauzak. Markagailuan 2 eta 0 aurreratu ziren, Fermin eta Txemak lortutako golei esker, eta une horretan kanporaketa berdindua zeukaten.

Trikitiren erreakzioa, Rafak bi gol egin eta bi taldeak parra, 2 eta 2.

Txemak 3 eta 2koa jarri zuen Lenitzen alde, eta Trikitiko Iñakik 3na berdindu.

Berriro Lenitz markagailuan aurreratu, 4 eta 3, Jorge goleatzaile. Eta berriro Trikitik berdindu, Emiliori esker.

Partiduko azken minutuetara iritsi, eta gainera garaipenaren gola sartzeko kapaz izan genituen Trikitikoak, 5 eta 4, goleatzailea Txutxi.

Kontuak kontu, azken finean Trikitik bi partidua irabazi dizkio Lenitz garagardotegiari, eta ezin ukatu, beraz, merezimendu osoz pasatu direla finalera. Larunbatean, Zuloaken kontra neurtuko dituzte indarrak, Zaldibarren urteko partidu garrantzitsuena eta egunik politena izango den honetan.



**AMAJUR**  
taberna

EGUNEKOMENUA  
AFARIAK  
JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6  
Tfnoa: 77 04 79  
ARRASATE



Zerkaosteta, 5  
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE



**Bodisca s.l.**

Zeramikako pabimentu eta  
gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11





## **Zuloak 5 Argi Ibili 1**

Hasiera hasieratik kanporaketa parekatua bazirudien arren, Argi Ibili iazko txapeladuna zela kontutan hartuta, pronostikoa euren alde zegoen nonbait. Pronostikalari gizajoak!

Semifinaleko lehenengo partiduan Zuloakek hortzak erakutsi zituen, eta baita launako berdinketa lortu ere. Bigarren partiduan atarian, beraz, finalerako txartela guztiz kolokan zegoen.

Egiaren orduan, Zuloakekoak jaun eta jabe izan genituen, atzekaldean serio, aurrealdean aukerak ondo aprobetxatu, eta garaipen erraza eskuratu.

Eurak aurreratu ziren markagailuan, Nuñezek sartutako golari esker, baina berehala iritsi zen Argi Ibilikoek berdinketa, Doyague goleatzaile. Hortik, eta partidu bukaerara arte, talde bakarra izan genuen Zaldibarren, kamiseta txuri-berdeak nagusi, Zuloak finalera bidean. Beste lau gol lortu zituzten: Etxabe, Errasti, Eperra eta Patxiren kontu.

Larunbatean, Argi Ibilikoek kantsolazio finalarekin konformatu beharko dute. Zuloak taldea, berriz, final handian egongo da, arratsaldeko bostetan, Zaldibarren beteranoei ere begirunea zor zaiela demostratuz.

Zarugalden...

**BRANKA**  
taberna

*Trikiti* S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56



**ASTEBURU HONETAN****Larunbata 29**

Zaldibar  
16.00 Leintz-Arri Ibilu. 3. eta 4. posturako  
17.00 Zuloak-Trikiti. Finala



**Angel Mari Etxabe**  
(Zuloak ekipoko jokalaria)

Azken bi urtetan Zaldibarko txapelketan hartu du parte Angel Marik. Iaz bigarren postuan gera ziren eta aurten momentuz finalera pasatu dira. "Astebukaera ondo pasatzeko tokia, ikusteko eta jokatzeko ere bai" honela definitzen digu Zaldibar "Badakit ez dela erraza, baina nire ustez partidu guztiak, Zaldibarren jokatu beharko lirateke, hemen egoten da zaletuen giroa eta" esaten digu. Finelerako txartela lortu dute, baina zer gertatuko da finalean?, "Argi ikusten dut, azkenean penaltika erabakiko da nor den irabazlea" esan digu.

# URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA



Uribe auzoko txapelketan finalerdiak jokuan daude, eta lau talde dauzkagu, beraz, txapelaren bila: Alpargata Turbo, Lautherbrunnen, Anbotoste KT, eta Sokoakoak.

Joan den asteburuan, hain zuzen, finalerdi horietako lehenengo partiduak jokatu ziren, honako emaitza hauekin:

**Alpargata Turbo 5-Lautherbrunnen 2**  
**Anbotoste KT 2-Sokoakoak 1**

Badirudi Alpargata Turbo taldeak finalerako txartela erdi lortuta daukala; Anbotostek, berriz, abantaila txikia hartu du bide horretan. Baina direnak direla, asteburu honetan erabakiko dira behingoz kontuak.

**Larunbata, 14.00, Iturripe: Sokoakoak-Anbotoste KT**  
**Igandea, 13.00, Iturripe: Lautherbrunnen-Alpargata Turbo**

## Tripubliko

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •



● *Mario Montenegro*

# Sarajevoz maitemindu zen irakaslea

**Irundarra izatez, Mario Montenegro Sarajevoko unibertsitateko irakaslea zen. Orain, SOS Balkanes-etako sustatzaileetako bat da, jo ta sua lanean Bosniarekin elkartasunean. Antimilitaristek eta Komite Internazionalistek Arrasaten antolatutako hitzaldi sortan egon zen.**

— Ze erlazio duzu Bosnia-ekin?

— 1990 hasieran joan nintzen Sarajevoko unibertsitateira irakasle. *Shock* bat izan zen hasieran, ez nuen hizkuntza ezagutzen eta mundu multietnikoa aurkitu nuen, mezkita, eliza ortodoxo, katedral eta sinagoga askorekin. Hiriaz maitemindu nintzen, pentsa, nire oraingo neskalaguna ere bertakoa da. Klaseak ematen nengoan, eta han nintzen gerra hasi zenean, lehen neak eta bonbardeoak ikusi nituen, nire etxetik oso gertu. Blokeatuta egon nintzen baina atera egin gintuzten ni eta Ruth, nire laguna. Bilbora etorri eta hemendik laguntzeko eta hango sufri-


mendua gutxitzeko ahal izan dudan guztia egin dut.

— Zer egiten duzue SOS Balkanes-en?

— Plastikoa biltzeko kanpaina batekin hasi ginen aspaldi, 18 milioi pezeta batu genituen bonbekin apurtutako leihoak estaltzeko. Gerora, proiektu asko bultzatu ditugu. Jangela handi bat muntatu dugu Tarcin-en egunero 500 laguni jaten emateko; boluntarioak izan ditugu Mostar eta Split-en, eta bulegoak dauzkagu Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Spliten zabalik. Esne-lantegi bat berriro zabalitzeko lanean ere bagaude. Beste proiektu batean, ni eta argazkilaria *free-lance* bat Sarajevora joan ginen elkartasun mezu batekin, eta helburua hiriak Sarajevorekin senidetzea zen.

— Interbentzioaren gainean zer?

— Kontzientziazio lanean ari gara. Gerra hau gelditu beharra dago, eta uste dugu badaudela horretarako bitartekoak. SOS Balkanes-en barruan iritzi desberdinak dau-



de. Batzuk interbentzioaren alde, eta beste batzuk ez. Jende pazifista dago, ezkerrekoa, beste batzuk ez horren ezkerrekoak. Geurea erakunde irekia da, eta gure lehenbiziko lema 'Gerra Stop' da, eta bigarrenik, nazioartea salatzea, gerra honetan dituen inplikazio guztiengatik.

— Nondik dator guzti hau, gerra gogor hau?

— Bi munduren arteko gatazka da oinarria. Bosnian egon da beti mendebalde eta ekialdearen arteko muga, ortodoxoen eta katolikoaren artekoa. Guztien liskarrak bertan ordaindu dituzte. Bosnia Slobodan Milosevic-en Pan-Serbia horren asmoa ari da jasaten, eta Kroazia Handiarena, nahiz eta hau askok ahaztuta duten. Bosniako lurraldeari zati handiak kendu dizkiote, eta horregatik gertatzen da garbiketa etnikoa, gogoko ez

dituzunak desagartarazi nahi hori. Gerra xenofobo eta arrazista da oinarrian, zentzurik txarrean.

— Igertzen zen halakorik gerta zitekeenik?

— 1989aren amaieran ailegatu nintzen, eta unibertsitateko nire ikasleen artean ez zen jendea desberdintzen, eurek ere ez zekiten nor zen kroaziarra eta nor serbiarra. Herrialde komunista zen, eta erlijioak ez zuen hainbesteko garrantziarik, jende asko eta asko atea zen.

— Baina orain, adibidez, nola desberdindu nor den kroaziarra?

— Oso erraza da. Kroaziako Franjo Tudjman-en erregimen faxistaren alde daudenak kroaziarrak dira, eta ahotsa altxatzen duenak, ez dira kroaziarrak, traidoreak dira, eta haien familia loturak arakutzen dira, ea ze lotura duten etsaiarekin. Serbian ere berdin, Milosevicen aurka ezer badiozu, *ustashi* bat zara, kroaziar afxista traidore bat zara, Serbiaren aurka borrokan. Kaka politiko asko dago guzti honen atzean.

● **“SOS Balkanes erakunde irekia da, jende pazifista dago, ezkerrekoa, eta ez horren ezkerrekoa”**



## Arrasateko ikastolak

# “Buesak jarri digu ‘pribatu’ abizen hori”

Luis Fernandez

**Arrasateko ikastolek hezkuntzaren sare publikoa aukeratu dute, edo hobe esanda, “orain arte bezala” jarraitzea erabaki dute, hezkuntza publikoan integratu gabe. Polemika luzearen ondoren, astelehenean egin ziren biltzarrek, partaide-tza handiarekin kasu gutzietan. Bozketa, pribatuaren alde, nahiz eta publikotasunaren aldekoak asko izan ziren, behintzat San Frantzisko Xabier (SFX) eta Umezaintzan.**

Bozketaren biharamunean, Arrasate Pressek hiru ikastoletako zuzendariak bildu zituen (SFXko Edurne Erauskin, San Viatorreko Esther Merino eta Umezaintzako Arantxa Lejarraga), eta irakasle talde baten iritzia ere jaso zuen.

Aukeraketa hau egitera “behartu” egin dituztela uste dute zuzendariak, ez dela burutu hasiera batean espero zen konfuentzia. Ez dute ikastolek eta sare publikoak proiektu berri batera jo, eta ez da eredu berririk asmatu. Horrez gain, hainbeste urteko polemika hiru asteko sprint batean “konpondu” izana ez zaie bidezkoa iruditzen. “Maiatzaren 10ean bidali zizkiguten datu batzuk hortik

aurrera minimo batzuk negoziatzeko, baina zenbat denbora gelditzen zen?”, galdeztzen du Merinok. “Azken momentua arte gauzak isilean eta ilunpean izan dituzte, eta txotxongiloak bezala erabili gaituzte”.

Argitasun falta etorkizunera luzatzen zen. Irailean, Euskal Autonomi Elkarte (EAE) mapa eskolarra berriro diseinatu behar da, ziklo eskolarrak berrantolatuko direlako. Egoera horretan, segurtasun eta argitasun faltan, orain arte bezala segitzeko aukera hartu dute ikastolek. “Baina horrek ez du esan nahi jada pribatuak garenik eta horrela izango denik betirako”, dio Lejarragak. “Pribatu abizen hori Buesak ipini digu”, gehitzen du Erauskinnek.

## BI SAREAK KONPARATZEN

Bozketetan, SFX eta Umezaintza ikastoletako irakasle gehienek sare publikoaren alde egin zuten. “Entzun izan dugu ikastola dagoela jokoan, baina jokoan dagoena euskarazko irakas-kuntza da”, komentatu digute SFXeko irakasle talde bate-tik. Hortaz, beren apustua indarrak batzearen aldekoa zen, horrela “euskarazko irakas-kuntzak irabaziko” zuke-elakoan.

Irakasleen ustez, publiko-  
ra pasatzeak ez zukeen kalita-





te galerarik ekarriko: "Euskalduntze prozesuan ez du batak bestearen inbidiarik gure bailaran". Euskalduntzen Arrasateko eskola publikoek egindako lanaz gain, "pedagogiari dagokionez, aldizkari espezializatuetako esperientziak eta artikulua, ia %100 hezkuntza publikoarenak dira", dio irakasle talde honen. Ikastoletako zuzendariak ez dute kalitatea zalantzan jartzen baina, "zartagina eskuan nork daukan" da kon-

tua. "Profesionalak dira batzuk zein besteak, baina erabakitzeko ahalmena guk gordetzen dugu, eta publikoan errekursoak ez bazaizkie ematen..."

Horretaz gain, eskola publikoan, ratio batzuk ezarriko liriteke: ikasgelako 1,25 irakasle. Eta horrekin, diote zuzendariak, ez legoke ikastolak orain ematen dituen zerbitzuak mantentzerik. Nahiz eta publiko bihurtu, aparteko kuota ordaindu beharko luke irakasleek, klase ordu gehiago izateko, adibidez, edo autobusa izateko Umezaintzaren kasuan. Antolaketa arazoak ere ekarriko lituzke honen.

Irakasleen hauen iritziz, sare publikoan eta pribatuan, bietan daude mekanismoak zentroen autonomia ziurtatzeko. Ez dute hala uste zuzendariak. "Eskola publikoan autonomia duzu proposamenak egin eta bidaltzeko, baina erabakia administrazioarena da; hor muga daukazu", dio Umezaintzako Lejarragak.

**ETORKIZUNA AURREAN**

Zuzendariak diotenez, gurasoen kuotak ez dira nabarmen aldatuko oraingoz. "Kuota esaten denean, kontuan izan behar da kuota horrekin zer eskaintzen den", dio Erauskinek. "Ezer eskainiko ez bagenu, gu ere doan izango ginatke, baina Ikastolak zerbitzu batzuk eskaintzen ditu".

Hemendik aurrera, 1997 urtera arte, zentro pribatuen

arteko parekatze progresiboa egingo da. Baina aldi berean, hezkuntza publiko eta pribatuko irakasleen soldatak parekatu beharko dira, eta horregatik negoziazio prozesu berri eta luzea hasiko da berriro. 97rako kuotak asko igoko diren esatea ezinezkoa da orain. "Duela sei urte ere ezin nizun esan zer ordaindu behar zen orain", dio Merinok.

Fase berri honetan, Ikastolen Elkartek lanean segitu behar du: "Eskola berria nahi badugu, hori jorratzen segitu behar dugu", dio Erauskinek. Bere iritziz, elkartasun handiagoa egongo da orain elkarrekin segituko duten ikastolen artean. Baina Merinoren ustez, Fernando Buesa Hezkuntza sailburuak bere helburuetako bat lortu du, ikastolen artean zatiketa eragitea.

Edonola ere, eztabaida egon izana onuragarria izan dela uste dute denek. "Auzi honek ez du inor indiferente utzi", dio Lejarragak. Erauskinen ustez, "prozesu guzti honek erakutsi du ikastolen mugimendua gizarte mugimendua dela, jendeari inporta zaiola ikastola". Irakasleen aldetik, bestetik, batzuen ikuspuntuak aurrera egin ez duen arren, oraingo norabidean segituko dute: "Ikastolan lana egin, ditugun ahalmenak eta indarrak esku artean duguna aurrera ateratzeko jarritz". Beraz, euskal eskola berria, denentzako helburu bera, aurrean dago oraindik.



**ESTHER MERINO**  
(SAN VIATOR)

**"Azken momenturarte gauzak isilean eta ilunpean izan ditu Hezkuntza sailak, txotxongiloak bezala erabili gaituzte"**




**EDURNE ERAUSKIN**  
(SAN FRANTZISKO XABIER)

**"Prozesu guzti honek erakutsi du ikastolen mugimendua gizarte mugimendua dela, jendeari inporta zaiola ikastola"**



**ARANTXA LEJARRAGA**  
(UMEZAINZA)

**"Eskola publikoan autonomia duzu proposamenak egin eta bidaltzeko, baina erabakia administrazioarena da; hor muga daukazu"**



JOSEBA

**Biltzarretako emaitzak**

Ikastola	Pribatua	%	Publikoa	%
S. F. Xabier	458	56,9	357	43,1
San Viator	288	70,4	116	28,3
Umezaintza	62	59,6	42	40,3
Almen	—	90,0	—	10,0



## Joseba Narbaiza

# Familia arteko kirol jaia prest

Arrasateko Kirol Proiektuak hiru urte bete ditu jadanik. Datorren maiatzaren 29an ospatuko duten jai batekin amaiera emango zaie aurtengo ekintzei. Horretarako, proiektuan parte hartu duten ume zein lagun eta senideak gonbidatu nahi dituzte jai horretan parte har dezaten.

— Zer da Arrasate Kirol Proiektua eta zeintzuk dira bere helburuak?

— Udaletxearen bidez bideratzen den proiektu honetan, kirola, gimnasia eta heziketa fisikoaren bitartez, haurren bizitzakalitatea hobetzea da helburua. Horren bidez, Arrasateko ikastetxe guztietako kirol heziketa batzea eta unifikatzea lortzen da. Aurten, eta nobedade bezala, Aramaio San Martin eskolako umeek hartu dute parte. Horretarako, kirol klase horiek emateko espezialisten eta profesionalen lana beharrezkoa da, kalitatea emateko.

— Urtean zehar nola joan dira ekintza desberdinak?

— Beno, ikastetxetik kanpo egiten dituzten kirol ekintza guztiak, umeen adinaren arabera, talde



desberdinetan banatzen ditugu: lehen eta bigarren mailan psikomotrizitatea lantzen dugu, hirugarren eta laugarren mailan aurrekirola, bostgarren eta seigarren mailan multikirola eta zazpigarren eta zortzigarren mailan lehengo espezializazioa. Baina, inportanteena herriko ikastetxe desberdinetako ikasleak batzea da eta hori ere lortu dugu maila batean. Alde horretatik, interesatu diren ikasleen aldetik, ia urtero kopuru berak hartu du parte, haur guztien %40ak. Aurten adibidez, mila haurrek hartu dute parte.

— Proiektuaren atzean ekipo handia egongo da, ezta?

— Bai, eta hori ere oso

inportantea da. Ikastetxez gain, Udaletxeak ere bere ordezkariak ditu proiektuaren antolakuntzan eta beste hainbat puntutan parte hartzen dutenak, kirol elkarte desberdinak eta Aukeak eta Diputazioak ere zeresan handia dute. Guretzat oso inportantea da herriko ordezkariak gure proiektuan sartuta edukitzea, nolabait inplikaturik daudelako.

— Zer ekintza egongo da 29ko jaietan?

— Gauza ugari antolatu dugu baina, haurrak ezezik, guraso, senide, lagun eta parte hartzeko interesa duten herritar guztiak ere gonbidatu nahi ditugu. Goizez bakarrik egongo dira ekintzak eta gehienak Iturripen. Arrasate-Aramaio-Arrasate txirringa bueltakin hasiko dugu eguna. Ez da lehiaketa bat izango, jai giroan eta bakoitzak ahal duen bezala egingo dugu. Baina bizikletarik ez dutenak patinekin ere etor daitezke Iturripera edo ta ezer gabe. Joku ugari egongo dira ume zein nagusientzat eta ez da derrigorrezkoa bizikleta edo patinak ekartzea, ekarri behar dena parte hartzeko gogoia da.

## LABURRAK

### Play-off-ean gogoz sartu da Mondra

2. B mailara igotzeko play-off-etako egutegia prest dauka Mondrak. Zozketaren ondorioz, Egues (Nafarroa), Utebo (Zaragoza) eta Escobedo (Cantabria) taldeak egokitu zitzaizkion aurkari, eta lauen artean ligatxoia egin ondoren, lehena igoko da 2. B-ra. Eta larunbatean bertan du lehen konpromezua, Eguesen, bertako taldearen aurka. Hurrengo partidua ostegunean izango da (ekainak 3), Atxabalpen Uteboren aurka. Gero, Mondra-Egues (ekainak 6), Escobedo-Mondra (ekainak 20) eta azken partidua Mondra-Escobedo (ekainak 27). Iñaki Zeziaga entrenatzailea nahiko pozik dago egokitutako taldearekin —“teorian beste batzuk baino errezagoak dirudite”— eta azken partidua Atxabalpen jokatzearekin. Berri txarra, joan den igandeko partiduan, Mungian, Moreno erdilaria lesionatu izana da.

### Txirrindulari frogak

Asteburu honetan Arrasaten korrituko da 1. urteko kadeteen Gipuzkoako erlojupeko txapelketa. Aurreko astean, Dorletako Ama taldeko jubentilek arrakasta lortu zuten Zumarragan izandako lasterketan. Alberto Roldan izan zen irabazlea, Joseba Garitano 7. eta Unai Navarro 9. Taldeka ere Dorletako Ama nagusi.

**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
77 05 65

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99

**Onduline TXOMIN HERIZ**  
**URALITA**  
eraikuntzarako materialak  
Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
ARRASATE



**PENALTIAK**

● **Emakumezkoen Mondrak nahiko errez dauka Gipuzkoako Kopako finalera iristea, Aretxabale-tari 5-0 irabazi baitzoten kanporaketan (ez dute atxabaltarrekin sekula ere galdu). Itzulera partidua igande honetan jokatuko dute.**

● **Gipuzkoako txapelketako finalaren atarian, geratu ziren saskibaloitaldeko mutil jubenilak eta neska kadeteak. Dena den, ez da saskibaloirik faltako asteburuan Arrasaten, aipatutako txapelketako finalak Iturripen jokatuko baitira larunbatean, arratsaldeko 4etatik aurrera. Kadete, jubenil eta senior emakumezkoak izango dira finalak.**

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Mungia 1 - Mondra 0  
 Preferente Araba: San Andres 2 - Mercedes 3  
 Emakumezkoak: Mondra 5 - Aretxabaleta 0  
 Jubenilak, ohorezkoa: Beasain 3 - Mondra 3  
 Jubenilak, 1. maila: San Andres 3 - Corazonistas 3  
 Kadeteak, 1. maila: Martutene 2 - Arrasate 0  
 Haurrak, 1. maila: Arrasate 1 - Bergara 3  
 Txikiak: Soraluze - Soraluze 3 - Mondra 3  
**Hurrengo partiduak**  
 2.Bra goiera play-off-a:  
 Egues - Mondra. Larunbatean, 6etan.  
 Mondra - Utebo. Atxabalpen, asteazkenean, 7etan.  
 Emakumezkoak: Aretxabaleta - Mondra. Ibarra anexoan, igandean, 16.30etan.  
 Haurrak, txikiak: Arrasate - Bergara.

**Saskibaloia**

Gipuzkoako federazio txapelketako finalerdiak:  
 Jubenilak, mutilak: Arrasate A 74 - Juven 79  
 Kadeteak, neskak: Amigos del Baloncesto 70 - Arrasate A 42  
 (Taldea biak kanporatuta)

**Pelota**

Deba Harroko txapelketa:  
 Infantilak: Arrasate 18 - Ermua 9 (finalera sailkatuta)  
 Jubenilak: Arrasate 22 - Elgoibar 10 (finalera sailkatuta)  
 Nagusiak: Arrasate 22 - Elgeta 15 (kanporatuta)  
**Hurrengo partiduak**  
 Deba Harroko txapelketako finalak, Elgoibarren, ekainaren 5ean:  
 Infantilak: Arrasate - Soraluze  
 Jubenilak: Arrasate - Antzuola



**IZADI MONDRAGON**  
**11 urteko igerilaria**

**Zer moduz igerian?**

400 metrotan 2. izan nintzen Legazpiko froga batean, eta oso pozik nago. 40-45 haur inguruk entrenatzen duen igeri taldearekin. Oso ondo pasatzen dut, entrenatu egiten dugu, baina jolasean ibili ere bai.

▪ Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara ▪

**Arrasateko Batxilergo Institutua**

**Ikastetxe publikoa 1993-1994 Ikasturtea**

**IKASKETA ESKAINTZA**

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI.  
 Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erljioa-Etika / L.T.P.:  
 Elikadura, diseinua, informatika, frantsesa, kultura klasikoa
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:  
 A. Zientzia arloa  
 B. Letra arloa  
 C. Zientzia-letra arloa
- U.B.I.: A. Zientzia-teknologia arloa  
 B. Arlo biosanitarioa  
 C. Giza-arloa  
 D. Linguistika arloa

**Datorren urtean**  
**I.E.E. ( R.E.M.)**  
**egiteko aukera**

**AURREINSKRIPZIO EPEA**  
**Maiatzaren 13tik 31ra**  
**Tfnoa: 79 44 47-37**

**EZAUGARRI OROKORRAK**

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea...

**EKIPAMENDUA**

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gela, liburutegia. Kabinete psikopedagogikoa.

**MATRIKULA DOHAINIK**



# Nuklearrik? Ez hemen, ez inoiz



**Apirilaren 26an**, zazpi urte bete dira Chernobilgo errektore batek eztanda egin zuenetik. Industri nuklearraren historian gertatu den katastroferik handiena da. Sua itzaltzen edo antzeko lanetan ari ziren pertsonen artean, orainarte jakin denez, zazpi mila lagun gertatu dira hilak. Honetaz gain, ehundaka mila lagun izango dira, era askotako minbiziak jasango dituztenak. Ez da posible datu zehatzagorik azaltzea, Minsken informatizatua zeuzkaten seirehun eta birurogeitamar mila pertsoneri buruzko osasun-txostenak, 1990ean "desagertu" zirelako.

Estatu espainoleko zentral nuklearrei dagokionez, bederatzirektore daude, eta 1992an energia elektrikoaren produktioetik, %35.5a zentral nuklearretatik sortua da. Sarritan, Sobietar Batasuneko zentral nuklearren seguritatea zalantzan jarri izan arren, egia da Mendebaldeko errektoreak ere ez daudela askoz ere hobeto.

Estatu espainoleko zentral nuklearretan gertatu diren istripuak garbi uzten dute, orokorrean, teknologia nuklearrak dituen arazoak. Nahiz eta 50 urte eraman, diru pila bat kostatu eta ikertzaile onenak enplegatu, oraindik ez dira arazoak behar

bezala ezagutzen.

Martxan jarritako lehenak dira arazorik gogorrenak eman dituztenak, eta ematen ari direnak, hain zuzen ere, Garoña (Euskalerritik berrogei kilometro ingurura dagoena) eta Guadalajarako Jose Cabrera izanarekin martxan dagoena. Hauen seguritate neurriak besteenak baino eskaxagoak dira eta oso egoera txarrean daude. Honegatik, sistemak hobetzeko inbertsioak egin behar izaten dituzte beti: Garoñan soilik, bere instalazioak hobetzeko, 22.000 miloi inbertitu behar izan dituzte. Zentral nuklearren arazoak, ixten diren momentuan ez dira bukatzen eta, hondakinekin zer egin ez jakiteak, luzarorako burukominak ematen ditu. Gaur egun, El Cabrilen (Cordoba) gordetzen dira, baimenik izan ez arren eta oraingoz, aktibitate handiko 1.000 Tn hondakin. Zentrala ixteko ordua heltzen denerako, 5.220 Tn hondakin nuklear izango dira.

Energia nuklearrak behar duen teknologia, oso konplexua, arriskutsua eta oraindik mendera ezina da. Berrogeitamar urte pasa ondoren, bere eraginaren larritasuna zenbatekoa izan daitekeen ez da zehatz-mehatz ezagutzen ez Ekialdean, ezta Mendebaldean ere.

**MIKEL OLABE**

## Datu harrigarriak!!

Chernobilen izandako istripuaren kostua, gaur egunerarte, ondorengo urteetan agertuko diren minbizi-kasuak eta ingurugiroari eragindako kalteak kontutan hartu gabe, 38 BILIOI PEZETATAN estimatu da, honela banatuta: osasun tratamendua (2.6 bilioi), ukitutako esparruaren garbiketa, populazioaren mugimenduak, aldegitte eta beralojatzeak (beste 2.6 bilioi) eta deskontaminazioa (oraindik inbertitzeko diren 33 bilioi). Koste hauek Estatu Espainoleko aurrekontuen maila antzerakoa dute. Pentsa ezazue, gure lurraldean antzerako zerbait geratuko balitz, gure ekonomian soilik izango lukeen eragina. Pentsa ezina!!

## Etxeko lanak garbiagoak?

**Etxeko** garbiketa lanak egiteko erabiltzen ditugun produktu asko oso arriskutsuak dira, gure osasunerako zein ingurugiroaren kalterako. Produktu horiek dituzten sustantzia gehienek era askotako problemak sortzen dituzte, hala nola, begi, larru edota birikien narritadurak, sute arriskuak, zabor toxikoak eta errekaeren pozoidura. Egon, badaude arazo horiek ebartzeko edo behintzat gutxitzeko alternatibak (horietariko asko galdutako ohitura batzuk

berreskuratuz). Hona hemen etxeko produktu batzuen alternatibak:

### 1- Labe-garbitzaileak:

Produktu hauek, amoniakoa eta potasio nahiz sodio hidroxidoak izaten dituzte. Sustantzia hauek oso toxiko eta erregarriak dira. Emaizta bera lortuko dugu, hilean behin (erabilera normal batean), labea garbitzerakoan, ura eta bikarbonatua nahasketa erabiltzen badugu. Gure kalterako arriskuak eliminatzen ditugu, eta erreka bidaltzen

dugun ura askoz ere garbiago izango da.

### 2- Haltzari eta zoru-diratzaileak:

Aurreko sustentziak bezala, produktu hauek daramatenak (petrolio destilatuak, nitrobenzenoa, dietilenglikola) toxiko eta erregarriak dira. Arrisku horiek ebartzeko, limoi zumo zati bat olio (oliba nahiz girasola) bi zatirekin nahastuz lortzen dugun dirratzailea naturala eta guztiz efektiboa da. Bestalde, ez dugun zaborrik eratzen, ezta

produktu arriskutsurik etxean gordetzen.


Goian aipatutako alternatibak, zuen lasaitasunerako, frogatuta daude eta, bere efektibotasuna ukazina da. Ziur nago ez direla alternatiba bakarrak, baina bai erabilgarriak. Bestalde, ohitura batzuk aldatzea eskatzen dutela ere agerian dago, baina nork ez du nahi, ingurugiroaren zein bere mesederako, ohitura kaltegarriak baztertea?

**XABIER ARREGI**



**OHoko 8. maila**  
amaitzear zauden gazte hori, adi:

# **ETORKIZUNA, ZUREKIN, EUSKARAZ DATOR!**



**Despistatu gabe.....eskolan eta kalean**

## **EUSKARAZ HAZI, HEZI eta BIZI!**

**O**HO bukatzerakoan mundu berri bat zabal-tzen zaizu. Zure etorkizunera-ko erabaki garrantzitsu ba-ten aurrean zaudenez, ondo pentsatu, baina,... orain arte bezala, zure geroa eta euska-rarena ziurtatzeko, EUSKA-RAZ IKASTEN JARRAITZE-KO zalantzarik ez izan.

**H**urrengo kurtsoan ez duzuerdibiderik, erdaraz (A ereduan) edo euskaraz (D ereduan) ikasiko duzu. Matrikula zaitez euskaraz, matrikula zaitez D ereduan. **EZ DESPISTATU**, egin ezazu euskararen eta zure **ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTUA!**



Arrasateko Udala



Arrasate Euskaldun Dezagun





Santa Barbarako parkea, herri barruko gure berdea.

# Santa Barbarako parkea

**Gaur** egun parke eder ageri zaigun mendixka horren jatorrizko izena Arrasate zen, Joxe Letonak bere artxiboan jasotzen duenez. Leku horretan, gaztelu handi bat eraiki zuen Antso Abarkak 980 urte aldera. Eraikuntza horrekin batera, harresiz inguratu zuen herria. Garai hartako pergamino zahar baten jasotzen denez, Enrike IV.ak, herriaren eskariz, gaztelu hori botatzeko agindua

eman zuen 1457ko martxoaren 30eko agiri batetan, lapur eta gaizkileentzat gordeleku eta izkutaleku bihurtu zela eta. 1442an ere gauza bera agindurik zuen Juan II.ak, mondragoetarren eskariz orduan ere.

Santa Barbara izena nahiko berria da, 1653 edo 1665eko. Barbara Abarrategi y Oro andreak ermita bat eraiki zuen Goiko Baluko ertz baten, Zarugaldera be-

gira. Santa Barbarari eskainia zen, Santa Ines eta Santa Gertrudisen irudiekin eta erdian Jaunaren Jasokundearen kuadroa zuela. Kulturako behar zuen guztia jarri zuen eta fundazioa ere egin zen, fundazio honek emandako irabaziekin urtean lau meza eman zitezten, Beste lau dukat ere jarri ziren, horien interesekin ermitaren kontserbaziorako lanak egiteko.

## ANGEL ABELETXE ETA BITTORINOTXO SORGINA (X)

**S**rantzun honek ez zituen guztiz lasaitu ehiztariok, baina inguru guztiak arakatuta ere ez odolik ez oinutsik aurkitzean, noizpait ere etsi zuten eta lehengo bideetan ezkutatu ziren. Orduan gure jentila joan zen sasira eta hil berri, bero-bero zegoen basurdea hartuta etxeratu zen.

Kibiztari edo lazero ezin eta hobeak nola ziren, sarri samar eskuratzen zituzten horrelako ehizeak, eta uda aldera musakolarrei eskaintzen zizkieten, okan, prixku, muxika eta abarren truke, igali-zale amorratuak ziren eta, tripakada egiteko asmoz. Gainontzean, hemen saldu baino gehiago zeukatenean, beti Gasteiza joaten ziren.

Horrelako jira batean, Otsok, hango perian, basauntz eta basurde biren truke erosi zuen troxakada bat gari bizkarreran zuela, Arrasateko ferixalekuan geratu zen. Musakolarrak inguratu zitzaizkion hango berriak jakin nahirik eta Otsok esan zien: Gamarrako Txitxirriok pregoia jo arazi zuela peri-lekuko lau aldeetan, eguzkiak berotzen zuen tokietan, nonahi, bere idi-parearen kontra beste idi-pare nahiz behi-parekin neurtzeko gai zenik bazan, bera gertu zegoela zer nahi diru jokatzeko itzai batekin eta Gasteizko probarr handiarekin. Horrelakoxe afizioa zegoen orduko gasteiztarren artean!

(Jarraituko du)

**ARREGITAR TIBURTZIO**

Erdiko kale. 79 19 37

**ILEA**

Ferreries. 79 87 62

**“PAL”**

**burdindegia, brikolage eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3, Tfnoa: 79 31 99

**beinke**

**IBARRA**

**Garajea S.L.**

**EBRO NISSAN**

Garajea Automobil-konponketa Garabi zerbitzua





errajerako barruko patioan bertako langileek ateratako erretratu da hau. Urtea seguru-seguru ez dakigun arren, 1947a edo izan behar zuen eta erdian eserita dagoen kontra-maixuaren, Faustino Etxebarriaren, erretiro eguna zen. Bere inguruan, laminazioko "Sección 1.1" deitzen zeneko langileak.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita, Isaias Urrutia, Floren Jauregi, Narziso Kruzelaegi, Kandiko Iturbe, Jose Urkizu, Gabriel Elkorobarrutia, Pablo Kortabarría, Juan Ortueta, Demetrio Zubia, Nikolas Unzalu,

Felix Belategi, Tomas Garrro, Tomas Elexpuru, Marcelo Uribarren, Andres Maiztegi, Alejandro Iturbe, Markos Aiastui, Tomas Ugalde, Sabino Iturriaga, Luciano Elorza, Andres Agiriano, Jazinto Trojaola, Jose Irasuegi, Juan Bengoa eta Jose Beitia.

Erdiko ilaran, Pablo Uribetxebarria, Pedro Irasuegi, Paskasio X, Angel Zabalá, Bernardo Bergaretxe, Tomas Lizarralde, Agustin Uribetxebarria, Bixente Garai, Tomas Alzola, Manolo Arana, Luis Urria, Jose Etxebarria, Jose Bilbao,

Benito Axpe, Pedro Agiriano, Bittor Herrarte, Antonio Lapuerta, Xanti Arana, Pedro Lonbide, Ignazio Izurategi, Karlos Martinez, Joseba Agiriano, Fabio Garcia, Eugenio Bilbao, Daniel Pagoaga eta Juan Arana.

Jarrita, ezkerretik eskumara: Pedro Bitoria, Ignazio Isasa, Jose Ugalde, Ignazio Isazelaia, Pedro Arozena, Frantzisko Jauregi, Isidro Legazpia, Alfonso Oroben-go, Faustino Etxebarria, Agustin Elkorro, Kristobal Bedia, Guillermo Elorza, Kalixto Kintana eta Rafael Ortiz de Landaluze.

*Large stylized graphic element, possibly a signature or logo, consisting of a large, flowing letter 'F' or similar shape.*

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Arreta handiko  
sukaldea  
Giro abegikorra



**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Arrasaten pisua alokatzen da**, San Andresen. Guztiz jantzita. Tfnoa: 79 85 39.
- **Pisu bat behar da alokatzeko**. Hutsik ba dago hobe. Tfnoa: 77 11 22. Gaez.
- **Laredon uztailan apartamendua alokatzen da**. Hondartza ondoan. Tfnoa: 79 52 80.
- **Torrevejan (Alicanten) apartamendua alokatzen da** ekaina, uztaila eta abuztuan. Hilabete osoetarako edo hamabost egunetarako. 78 14 72.
- **Pisua saltzen da erdialdean**. Tfnoa: 79 37 96.

**Lana**

- **OHOk zein ingelesezko klase partikularrak ematen dira** (maila guztiak). Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Ordenadoreetan lanak egiten dira**. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.
- **Neska gertu dago umeak zaintzeko**. Tfnoa: 79 77 94. M<sup>a</sup> Eugenia.
- **Esperientziadun emakumeak etxeko lanak egin eta umeak eta/edo pertsona nagusiak zaindiko lituzke**. Tfnoa: 77 05 49.
- **Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest**. Tfnoa: 77 01 43. Idoia.

- **Esperientziadun neska pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da**. Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- **Prest nago atarte, bulego eta lokal komertzialak garbitzeko**. Tfnoa: 79 49 05. Eburne.
- **Gertu nago umeak zaintzeko**. Tfnoa: 79 82 98. Sonia.
- **Lan barik nago. Edozein almagazetako edo antzerako lanetan lan egingo nuke**. Tfnoa: 78 00 63.

**Salerosketak**

- **Nikon argazki makinarentzako duplikatzaile makroa salgai**. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabierto.
- **Egoera onean dauden Razesa markako bi bizikleta salgai**. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 86 72.
- **Karabana saldu nahi dut**. Adria karabana salgai, 4-5 personentzako, oso egoera onean. Abantzea eta frigorifikoa. Tfnoa: 76 49 14. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Vespa motorra SS-V salgai**. Tfnoa: 79 91 41.
- **Opel Corsa City, BI-AK saltzen dut**. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan (94) 620 19 18 tnora. Gorka.
- **Barku itxurako ohea, antzinakoa eta antzinako komora salgai**. Tfnoa: 79 93 06. Nati
- **YAMAHA virago 535 salgai**, aste barruan; Ferrerrias 44, 3. eskuma. Aste bukaeran: Tfnoa: 88 28 63. Aitor.

**Denetarik**

- **Urtebeteko pointer-setter txakurra ematen da**. Noblia eta osasuntsua. Tfnoa: 79 41 49.
- **Identitateko txapa kataiduna galdu da**; Danel izena jartzen du eta 1-5-93 eguna. Arrasateko 79 37 00 telefonora dei egin gaueko 9etatik aurrera, edo ARRASATE PRESSERA bertara. Eskertu egingo da.
- **Erloju bat aurkitu dugu Musakolako jaietan**. Zurea bada, dei egin ARRASATE PRESSERA.
- **Pisu larregi duten 100 lagun behar ditugu**. Produktu natural iraultzailea medikuek gomendatua arriskurik gabeko proba. %100 garantzua. Informazioa: 79 04 62. M<sup>a</sup> Jose.
- **Inperdible bat daukan giltza joko tapatu dut**, zeurea bada jo Udaltzaingora.
- **Frantziako Pau herriko neska batek Arrasatera au pair modura etorri nahi du irailetik otsailera**. Tfnoa: 79 54 46. Urri.

**Aste Gazte**

**Bekak**

Gipuzkoako Lurraldeari buruz Historia Ikerketak burutzeko bekak. Historian lizentziatutako gipuzkoarrei zuzenduak. 1.200.000 PTAko bekak. Epea: ekainak 11.

**Barnetegiak**

Beste modu bat uda ondo pasatzeaz gain zure euskara hobetzeko. Toki eskaintza zabala, maila guztiak, iraupen ezberdinak... Zuk auke-ratzeko. Badakizu, gainera, bekak lor daitezkeela.

**Auzolandegiak**

Estatu mailako plaza guztiak hartuta daude. Euskal Komunitate Autonomorako batzuk geratzen dira (Zallan, Muskizen, Otxandion...). Interesatzen bazaizu, mugi zaitetz.

Atzerriko informazioa ere badago. Herrialde, modalitate eta data ezberdinak. Erreserbak Bartzelonako elkarte baten bitartez nahiz antolatzailleekin zuzenean egin daitezke.

**Sexualitate tailerrak**

Ekainaren 4-6 asteburuan gazte taldeetako monitoreei zuzendutako lehenengo tailerra burutuko da. Tokia: Urkuluko aterpetxean.

**Gazte txartela**

15-25 urte bitarteko guztiek eskura dezakezue. Nortasun Agiria eta argazki bat behar duzue.

**Lehiaketak**

Irun Hiria Literatur Sariak. Euskaraz nahiz gaztelerez. Modalitateak: ipuina, olerkia eta elaberria. Sari garrantzitsuak. Epea: uztailak 30.

**“Egun, emakumea lehen baino askoz ere zoriontsuagoa izan daiteke, berak egiten duenaren ardura-dun bakarra bera baita”**

**ROSA CHACEL**  
(95 URTEKO IDAZLEA)



**Informazio gehiago:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
Tfnoa: 77 00 65



# ZER NAHIAGO?

## Vicente Dorronsoro Iker Sukaldeak dendakoa



- **Egur mota bat?** Haritza da gehien gustatzen zaidana.
- **Sukalderik garestiena?** Beno, prezioa materialaren eta neurriaren arabera egoten da.
- **Pelikula zalea zara?** Bai, baina lehen orain baino gehiago, batez ere zinera joatea asko gustatzen zait.
- **Zapatak ala sandaliak?** Nire lanerako zapatak egokiagoak dira.
- **Familia handia duzu?** Bai, nahiko handia.
- **Sukaldeko tresneriarik konpletuena?** Denak dira beharrezko: frigorifikoa, garbigailua...
- **Krisia igartzen duzue?** Bai, azken urte honetan batez ere.
- **Noiz zabaltzen duzu denda?** Goizeko 8etarako hemen egoten naiz baina 9etan zabaltzen dugu.
- **Kompetentzia handia dago?** Gero eta gehiago.
- **Nora joango zara oporretan?** Oraindik ez dakit, baina kostaldera seguruenik.
- **Baduzu kotxerik?** Bai, beharrezkoa dut.
- **Herririk politena?** Euskal Herrian, Lesaka.
- **Zer gosaltzen duzu?** Denbora dudanean bakarrik gosaltzen dut.
- **Sukalderako adornurik egokiena?** Erabili daitekeen zerbait.
- **Etxeko gelarik goxoa?** Egongela.
- **Sukalderako kolore bat?** Zuria eta kolore apalak daude modan.
- **Ogi zalea zara?** Puf! bai, oso.
- **Ordenadorea erabiltzen duzu?** Bai, baina lanean bakarrik, etxean ez.

## BERTSOAK

### JUGOSLAVIAREN ALDE

Jugoslavia aldean  
dugu gerra hotza  
jende askok bilatu du  
bere heriotza  
neri apurtutzen zait  
erditik bihotza  
ez al die ematen  
militarrei lotsa?

Bertan jende guztia  
dago erdi hila  
ihesian dabilta  
babesaren bila  
egunero hiltzen dira  
ia-ia mila  
ez dago eskubiderik  
hauxe nahaspila!

**BENAT ARREGI**



# URONDO

## elektrizitatea

- \* **Elektragaiak**
- \* **Instalazioak**
- \* **Automatismoak**
- \* **Argiztapena**
- \* **Bobinaketak**
- \* **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



## Joakin Rodriguez

# San Juanetako kartelaren egilea


San Juanetako kartel lehiaketako irabazlea dugu Joakin. Horrelako lehiaketa bat irabazten duen lehendabiziko aldia da Joakinentzat, baina zaletasuna betidanik izan duela komentatu digu.

— Noiz hasi zinen marrazten?

— Nik uste dut betidanik izan dudala zaletasun hori. San Viatoroko fraile batek asko erakutsi zidan: maiatzean Amabirgina eta beste santu batzuk ere pintatzen genituen, ordutik klaseetatik kanpo ere marraztu egiten nuen eta piskanaka piskanaka nire hobby bihurtu zen. Gero Agirrek ere eman zizkidan klase batzuk eta ordutik nire zaletasunik handiena izan da. Baina, esan bezala zaletasuna da, ez bizibidea. Lehiaketa aldetik, Diputazioak antolatu zuen lehiaketa batera aurkeztu nintzen baina ez nuen ezer irabazi eta beste behin herriko haratuzteetako kartel lehiaketara ere aurkeztu nintzen, baina orduan ere ez nuen ezer irabazi.

— Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Beno, norberaren estiloa definitzea oso zaila da artista batentzat, niri gehiago gustatzen zait ikusleek definitzea. Pasa



den astean etxera etorri zen lagun batek surrealista estilokoa nintzela esan zidan, baina ez dakit, nire ustez hori baino errealistagoa naiz. Egia esan, asko gustatzen zait pintatzea baina idaztea beharbada gehiago gustatzen zait. Horregatik, kuadroa egiten hasi baino lehen beti izaten dut ideia literarioa eta pinturaren bidez ideia literario hori kuadroan erakusten dut. Hasiera batean, kontzeptuak dira kuadroan agertzen diren

.....  
*“Kartelean, tanborradako pertsonai desberdinek jaiaren barruan duten zeresanak du garrantzi gehien”*

elementu desberdinak, gero irudi, kolore bihurtzen dira. Horregatik, nire kuadroetan askotan letra batzuk agertzen dira. Kolore aldetik, kolore biziak erabiltzen ditut batez ere urdina.

— San Juanetako kartela nola definituko zenuke?

— Lehen plano batean tanborradako pertsonaia desberdinak jarri ditut, beharbada gure herriko jai hauek tanborradarekin asko identifikatzen direlako. Kartelaren beheko partean, berriz, jaietako pertsonaia desberdinak pintatu ditut: izozkiak saltzen dituen, zezenak, soinu joleak, harrijasotzailea... Eta goiko partean herriarekin identifikatzen diren etxe batzuk, mendi batzuk: Udalaiz, Arrasateko arku, eta baserriak, bakoitza beren suarekin... Baina, San Juanetako sua kartel osoan ikusten da, tanborradaren atzean ere gorri gorri ikusten da. Beharbada, kartelak duen elementurik inportanteena ez da tanborrada bera, parte hartzen duten pertsonak baizik, pertsonen definizioa jaiaren barruan. Egia esan, niretzat sorpresa handia izan zen, azkenengo momentuan aurkeztu nuen kartela eta ez nuen irabazterik espero, ilusio handia egin dit.


## LABURRAK

### Pintura eta Zeramika erakusketa

Aita Mennin zabalik dago maiatzaren 30 arte Jon Balentziagaren kuadro eta zeramika erakusketa. Gaien artean, bodegoiak, paisaiak, itsasoa eta abar eta eskulturetan, berriz, egurra da gehien erabiltzen duen materiala. 1989an Arrasaten eskultura txapelketa irabazi zuen eta iaz Euskadi mailako elbarrituen lehiaketako lehen saria.

### Jostailu erakusketa

Maiatzaren 30 arte zabalik dago Harresi aretoan jostailu erakusketa. AEDko Ludotekatik pasatu diren ikastetxe desberdinetako 6. mailako ikasleek eginiko jostailuak ikus daitezke. Ordutegia: astegunetako 6etatik 8etara eta asteburuetan 10etatik 12etara, 6etatik 8etara. Datorren aste osoan zabalik egongo da goizez ikastetxeek bisitatzeko.



GIZON ETA  
 EMAKUMEAREN  
 MODA



Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

Hilbera  
 kafetegia

Uribarri Etorbidea  
 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
 eta ostiral  
 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



## MITOLOGIA

## Mari (III)

Euria edo lehortea egin aukeratzen du eta ekaitzak ere berak zuzentzen ditu. Honela, eskualdeak zigortu edo saritzen ditu, bertako biztanleen jarrera nolakoa izan den arabera. Ekaitzak gidatzen ditueanean, zaldiz bultzaturiko gurdi baten gainean hegan joaten omēn da, hodeien aurrean.

Numen honek, gezurra, lapurreta, harrokeria, emandako hitza jatea eta elkarri ez laguntzea gaitzesten ditu. Horrelako hutsen bat egiten duena gogor zigortzen du; batez ere gezurra. Esana da, Mari "ezarekin eta baiarekin" bizi dela, hots, dena ukatu eta ez dena baieztan dutenen hitzarekin. Adibidez, artzai batek dituen 100 ardietaz, 90 dituela edo 110 dituela esaten badu, ezkutatu nahi edo gehitu nahi zituen hamarrak galduko ditu; sorgin deituriko iratxo hauek (ez nahastu guretzat ezagunagoak diren pertsona itxurako sorginekin), gezurtiaren etxera joan eta ezkutatu edo gehitu duen guztia beraientzat hartzen dute, gero Marirengana eramane eta horietaz elikatzeko.

LIERE LARREA



Auzolandegia ez baina Ingurugiro udalekua izango da Udalan.

## Ingurugiro udalekua egongo da Udalan uztailean

**Azken** bi urteetan, Udala auzoan auzolandegi edo lan-kanpamendu bat egon da martxan. Aurten, Jaurlaritzak ez du auzolandegiaren plana onartu, baina, hala ere, gazteentzako egonaldi berezia egongo da aurten ere bertan: ingurugiro udalekua antolatu du Arrasateko Udalak Gipuzkoako Diputazioarekin lankidetzan.

Uztailean, hamabost eguneko bi txandatan, 14 eta 17 urte tarteko 50 bat neska-mutil pasatuko dira Udalako ingurugiro eskolan izango den udaleku honetatik. Programan, ingurugiro ikastaro bat jasoko dute, ibilbideak egingo dituzte eta, ekintzen artean, meteorologi txabola bat eraikiko dute, txorientzako habiak pres-

tatu eta maketak egin.

Auzolandegiarekin desberdintasunak izango dira, ez da "lanik" egingo, haietan bezala. Adibidez, aurten Udalako sasi batzuk garbitzeko asmoa zegoen, baina ez da hori egingo. Udalekuen planteamendu ludikoa dela eta, horrelakoetan egiten diren ohizko ekintzak, astialdikoak, irteerak eta abarrak, sartu dira programan.

Auzolandegia atzera bota izana, Jaurlaritzak eskaera asko jaso dituelako izan da. Horren ondorioz, aurreko urteetan auzolandegirik izan ez duten herriak aukeratu dituzte. Hori ikusita, Arrasateko udala Diputazioarekin jarri zen kontaktuan, eta horrela hitzarmen bat sinatzea lortu


da. Hain zuzen ere, udal batekin Diputazioak egindako era honetako hitzarmen bakarra da.

Udala egonaldia Diputazioaren "Bizi udako abentura" programan sartu da, era honetan. Programan azaltzen diren beste egonaldiak Gipuzkoatik kanpora dira, Akitanian, Nafarroako Esako urtegian, Asturiasen eta Urribarri Ganboako urtegian. Horrez gain, hizkuntzak ikasteko egonaldiak eta bidaiak kulturalak (Galiziako Xacobeora) antolatu ditu Foru Aldundiak. Udalako udalekuan eta gainerako aukera hauetan izena emateko epea maiatzaren 31n amaitzen da, astelehenean, eta hemen Udaleko Gazte Zerbitzuan egin daiteke.

**ARRASATE  
PRESS**  
**HARPIDETZAK**



77 05 65



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

**OSORIK  
PUB**


Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



· ESAERA ZAHARRA ·

“Eskumarekin eman eta ezkerrarekin batu”

· JEROGLIFIKOA ·



Noiz argitaratu da liburua?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10				11		
12				13		
			14			
15	16	17				
18					19	

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Banatzearen egin-tza. 8. Baserria, kalea eta auzategia. 9. Xare bokalik gabe. 10. Zamorako ibilgailuetan. 11. Egur. 12. Turkiako hizkuntza. 14. Bildots. 15. Identitate. 18. Atturri ibaiaren izen frantsesa. 19. Eta.

**Bertikalak** 1. Isatsa. 2. Erregela. 3. Neu. 4. Legegizon. 5. Zerbait erretzean sortzen da. 6. Tragu. 7. Uretako hezurdun animalia. 11. Grekoen jaingo gorena. 13. Izar txikia. 16. (Ald.) Musika nota. 17. Atzizki adberbio sortzailea.

· HOROSKOPOA ·

**Aries** Gorde ezazu ongi diru zorroa; zuk uste ez duzun arren, lapur ugari dabilta inguruan.

**Taurus** Zuzen itzazu etxean okerturik dauzkazun kuadroak, bestela zori txarra ekar baitiezazukete.

**Gemini** Egin iezaiozu bisita haginlariari, premia galanta duzu eta.

**Cancer** Ibil zaitetz kontuz errepideak zeharkatzerakoan.

**Leo** Joka ezazu loterian, hau zure zorteko astea baita.

**Virgo** Nahiz eta gauzak ez zaizkizun bat ere ongi irtengo, ez etsi. Helduko dira garai hobeak.

**Libra** Bizikletan ibiltzera bazoaz, kontuz! Kotxe asko dabilta. Abisatuta geratzen zara, eh?

**Scorpio** Insekturen batek zitzada ikaragarria egingo dizu lepo ondoan.

**Sagitaris** Neska baten beharrez, bi dabilta zure atzetik. Nor aukeratuko duzu? Bai lan zaila.

**Capricorn** Ez egin azterketerako “txuletarik”, maisuak ez dizu gainetik begirik ere kenduko.

**Aquarius** Zortedun zabilta, biharko etapa zure txirindulariak irabaziko du eta.

**Piscis** Horrenbeste erakartzen zaituen mutil hori inuxente hutsa da.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

**Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA




DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



• PEDRO ZUMELAGAREN GOMENDIOA •



Hobby bat edukitzea gomendatzen die Pedrok bere edadekoei. "Lanetik kanpo be zerbait biher da. Lanak eñ einbiher die eta eñaz gusto apur bat hartzen jako, baina bestelako afiziñoren bat biher da". Bere afizioa kantua da, ume-umetatik hasita, zelaian ganadu-zain ibiltzen zenetik, eta horri esker Europarik erdi ezagutu du eta hainbat lagun egin. Euskaraz irakurri eta idaztea ere oso gustoko ditu. Bere edadekoei, gazte artean sartzeko aukerak aprobetxatzea gomendatuko lieke, "gaztien pentsakerak, euren bizittasuna... oso aberazgarriak die, beti geurien anklautu egon barik".

• PROGRAMAZIOA •



**30 Igandea**  
8.00 Monterock  
8.30 Mondragol: Egües-Mondra

**31 Astelehena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondragol  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Zaldibar: 92-93  
10.00 Asteko Zinea: Jeremiah Johnson

**1 Asteartea**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Zaldibar 92-93  
8.8.30.9 Berriak.  
9.30 Bakarka: Txaro Arteaga  
10.00 Asteko Zinea: Jeremiah Johnson


**2 Asteazkena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bakarka: Txaro Arteaga  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Hauteskundeak 93: Alderdi guztietako goi karguak Jon Sarasuak moderatuta.

**3 Osteguna**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Hauteskundeak 93 (bezp.)  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Mondragol  
9.45 ATBketan  
10.15 Asteko Zinea: Jeremiah Johnson

**4 Ostirala**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondragol  
1.50 ATBketan  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Monterock.  
10.00 Asteko Zinea: Jeremiah Johnson

• KOMIKIA •

THIPIROI TALDEA



• SOLUZIOAK •

Igaz eta aurtén.  
**JERROGLIFIKOA**  
11. Zeus, 13. Ikar, 16. Od, 17. Ro.  
4. Abokatu, 5. Ke, 6. Txurrut, 7. Arraina.  
**Bertikalak:** 1. Buztana, 2. Aratu, 3. Ni.  
15. Nortasun, 18. Adour, 19. Ta.  
Xr. 10. Za, 11. Zur, 12. Turkiera, 14. Axuri.  
**Horizontalak:** 1. Banaketa, 8. Urbe, 9.

**GURUTZEGRAMA**

**UGARTE**

Industri  
Hornidurak  
Arrasate Pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 79 34 12

mokasin

Zapatak eta  
osagarriak

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**URRATS**  
**AHOLKULARITZA**  
GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE



# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR



## SUKALDE LILURAGARRIAK!

### SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

**URRETXU**

Tfnoa: 72 50 75

### BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 99 42